

Berrio Bulebarra...

"Ahal zen neurrian" astero-astero giza-politik azalpen batzu eman nahirik sortu zen, eta informazio-erak berak, itoerazi zuen.

Euskal talde politikoak ez dira "politikoegiak" izan euskal komunikabideez baliatzean. Bego klandestinitatea, ezin bestean. Baina "oskurantismoak" ez dio inori mesederik egingo.

MCE-ko informaziorik nahi beste du. PSOE etxera etorri zaigu hots egin bezain laster. PCE-k afaltzera ere gomiatu izan gaitu. EKA-renkin harreman hestuak izan ditugu. Bestelakoekin, ordea, hutsaren hurrengo, euskal kazetaritzarentzat ez baleude bezala. Eta, gero, notziaren bat, ohostuz, lapurrretan, lortu izan dugunean.. arinegi ari ginela-ta kexak entzun behar.

Guzti honegatik, edota honegatik bakarrik, Bulebarra ez zen gehiago azaldu. Eta pena da. Ez dakit nik, zer garrantzi edo balio politikorik ukan zezakeen, baina kazetaritza soilez (eta ez naiz besterik izaten ahalegindu) behintzat agiriko euskal sail politiko fijo bakarra. Horregatik, behar bada, politikoei baino kazetariak gehiago animatzen ninduten jarraitzera.


Dena den, azken bizpahiru hila-bete honetan gauzak dexente aldatu dira. Batetik, euskal talde bat plazara atera da. Eta, beste zenbait, gutienez, aipaturiko "oskurantismo"-tik irten. Bestalde, Z. ARGIA honek, erlijio aldizkaria izateari utzi, eta, legez, informazio orokorreko izateari ekiten dio ale beronekin batera. Beste urrats bat da euskal kazetaritzaren barruan. Zenbaitek uste baino garrantzitsuago. Politikoen hitzez, "liberatzea" esango genuke. Hurren pausua, "profesionaltzea" litzateke.

Mintzo daitezela ba, euskal politik eta sindikal taldeek. Aldizkari honek guztien iritzia jasotzen jakin dezala. Eta, nahi duena, edo gogorik duena, sail honen astero-ko lanaz ardura dadila. Zeren, azken batean, gauzak daudenez, ez dateke ni bezalako bat aukerakoa. Eta, hau esaten inor lotsatze-kotan, ez naiz ni izango. Aukeragorik ez ote hor zehar ?.

PRESOAK KALERA

Erabatekoa ez bada izan ere, zorioneko amnistia loratu da az-

ZER ESKATZEN DU HERRIAK



AZAR, S. L. - Munduz, 14 - San Sebastia



kenik, eta ondorioak kalean dira iadanik. Sukursalistek esan dutenez, "Gobernu honek eman zezakeen amnistiarik oparoena" omen.

Politikaz sarri asko aipatu izan den leloa baliagarri dakiguke orain ere, hots, Espainiarentzat irtenbide ona izan daitekeena, Euskal Herriarentzat motz gera daitekeela.

Edozein modutan, herri mailan amnistia honek poztasun bat sortu duela ezin uka. DEBAN, esate baterako, "Itziartxo" atera dela eta, zazpi urtetan tanborradarik jo gabe egon ondoren, aurten berriro jo duenik bada.

Bestalde, "amnistia" pegatinak (era guztitako bozetoak daude) eta "presoak kalera" oihuak ez dira gutitu, areagotu baizik. Zeren, azken batetan, amnistia ez da amnistia izango, gartzelaratu guztiak kalera ez diren artean, eta berriro sartzeko legeria aldatzen ez deino. Ondarroako azken gertakariak lekuko.

Hirugarrengo gobernu bat beha ote ?.

SINDIKALGINTZA BATURANTZ

ELA/STV, datorren urrian edo eratzeko den kongresoaren prestazioari ari da. Dagoeneko, oinarriko araudiaren hamasei orrialdeko aintzin-proiektu bat banatua da partaiderik errepresentatiboaren artean, bakoitzari iruditzen zaizkion zuzenketak eta eraskinak denboraz egin ahal ditzaten.

Urriko kongreso hau, "euzko-langilleko" guztien biltzarra nahi luke izan, nork bere burua baztertzeko duenik ez, bestelako bereizkuntzarik egin nahi ez delarik. ELA "zaharrak" kongresoaren atzerapena eskatu du, gauzak ondo eta bateratasun zentzuz-egitea komeni delakoan.

Euskal sindikalgintza, politik talde zenbait bezala, pertsonalismoak gainditu beharrean dagoke.

"EXTRAÑO ALCALDE"

Honako izenburuaz, Madrileko "El Alcazar" egunkariak, editorial gisako artikulua bat idatzi du, uzta-tilaren 21eko biltzarra dela eta, Bergarako Alkateak irakurri zuen manifestuari buruz.

Ez gara hemen, bere bezala, inolako lerrokadarik bere kontestotik ateratzen hasiko, eta ezta kritikaren kritikarik egiten ere. Nabarmen da, Bergarako Alkateak eta "El Alcazar" delakoak bi mundu guztiz desberdin, kontrajarririk, errepresentatzen dutela, eta Madrileko egunkariak euskal arazoak tutik ez ulertzeak ez gaitu batere harritzen. Espazio diferentek dira.

Kuriosoa da bestalde, Bergarako Alkatearen kontra idatzitako artikulua herri mailan fotokopiaz zabaldu dutenak, haren aldekoak izan direla, eta ez "El Alcazar"-ekoak. Jarrera hau, edozeinbat azalpen baino esanguratsuago dateke.

AMATIÑO